



ZER MODUZ AURTENGO INAUTERIAK?

Herritarrek, oro har, ederki igaro dutela urteko jairik zoroenetan azaldu dute »

TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO

hitza



Asteazkena
2009-02-25

VIIURTEA 1.639.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

NORMALTASUNA BERRIRO

TOLOSA Bukatu dira aurtengo Inauteriak; zoramenetik irten eta ohikotasunera itzultzeko unea iritsi da, beraz

GAUR Ajearen eguna atsedenerako baliatzekoa izan ohi da; HITZAren kasuan ere, bihar ez baita kalean izango 3-6



Benetakoak ala gezurretazkoak, txarangak dira Inauterietako protagonista nagusiak. I.GARCIA



Otsailak 28

LARUNBATA

SU TA GAR
KONTZERTU HANDIA

SALMENTA PUNTUAK: • Zunbeltz musika denda (Tolosa)
• Peritza taberna (Leitza)
• Leku ona taberna (Etxarri -Aranatz)
• Ilargi taberna (Lekunberri)
• tic-tac ticket web orrian

SARREREN PREZIOA: Aurretik 12€ eta leihatilan 15€

www.salamuxu.com

Sala muxu • Albisualdea industrialdea 31 zkia. • LEKUNBERRI



A Argazki zaharrak



» PASARTEAK

- **1889.** Atzo gauean egin zuten *Sardinaren hileta* aurtengo Inauteriak agurtuz. Bada, 1889. urtean topa daitezke ekitaldi hau ospatu zen lehendabiziko datuak.
- **1930.** Urte honetan, Inauterietako karrozkek izan behar dituzten ezaugarriak zehazten dituzte.
- **1956.** Tolosako erreginaren lehiaketa antolatzen dute. 1987. urtetik aurrera Inauterietako erreginaren lehiaketa bezala izango da ezaguna. Gainera, urte horretara arte Tolosako udaletxean ematen zen erreginaren berri, eta hortik aurrera, Kultur Etxean egin zuten. 2001. urtean utzio zioten lehiaketa hau antolatzeari.
- **1600.** Urte horretan omen dautolosa Tolosako Inauteriei buruzko lehen datuak.
- **1959.** Gudari kalean egiten zen azken sokamuturra izan zen urte horretan. Ortzadar elkarteak antolatzen zuen.

» HURRENGO INAUTERIAK

- **2010.** Otsailak 14.
- **2011.** Martxoak 6.
- **2012.** Otsailak 19.
- **2013.** Martxoak 2.
- **2014.** Martxoak 2.
- **2015.** Otsailak 15.
- **2016.** Otsailak 7.
- **2017.** Otsailak 26.
- **2018.** Otsailak 11.
- **2019.** Martxoak 3.

«Mozorrotzen zaren Inauterietako hiru egun horiek gustatzen zaizkigu gehienbat»

HARITZ DOIARZABAL ETA IKER MARKET › Inauterizaleak

Inauteriak › Ibartarrak eta tolosarrak urtero jendea lur eta zur uzten duen zerbait egiten dute koadrilaren laguntzaz.

ASIER IMAZ

Inauteriak iritsi orduko kalera irten dira Haritz Doiarzabal (Ibarra, 1978) eta Iker Market (Tolosa, 1978). Azken urteetan ospe handia lortu dute Inauterietan, euren koadrilarekin batera, konpartsa egunetan ateratako karrozei esker. Aurtengoan Triangulon zeuden biak, emakumez jantzirik, *Ingalaterrako Astoak*-eko karrera ikusten.

Inauteriak barne barnetik bizitzea gustoko duzuela esan daiteke, eta mozorrotzea ezinbestekoa da zuen kasuan?

Iker Market: Bai, horrela da. Aurtengoan gehienetan kalean ibili gara, bai Ostegun Gizanean eta baita danborradan ere, larunbatean. Baina niretzat egun politenak

mozorrotzen zaren egun horiek dira; Inauterietako hiru egunak: igandea, astelehena eta asteartea. **Haritz Doiarzabal:** Niri ere hiru egun horiek gustatzen zaizkit gehien. Urtero mozorrotzen naiz, gehienetan emakumez gainera. Koadrila berekoak gara eta aurtengo Sirenitaz eta orain zaldi karreretara Ingalaterran joaten diren emakume horietaz jantzi gara. Kasu

H. D.: «Barneko benetako izaera Inauterietan kanporatzen dudala esan ohi didate»

honetan karrerak Astoak izena baldin badu ere euren modura jantzi gara, pamela eta guzti. Badakizu karrera horietan garrantzi handia ematen die janzkera eta buruko estalkuari, guk ere gure ikutuarekin berdin egin dugu.

Mozorrotzean barnean duzun hori ateratzen al duzu?

H. D.: Askotan esan didate hori. Inauterietan barneko izaera hori



Goran Haritz Doiarzabal eta beheran Iker Market A. IMAZ

edo ateratzen dudala. Ez dakit, askotan entzun dut eta agian horrela izango da.

I. M.: Inauterien parte da nahi duzun hori egitea. Zerbait gainean jantzi eta pertsonaian sartzen zara. Askotan ideia azken egunetan etortzen zaizu eta beste zenbaitetan askoz lehenago edukitzen duzu buruan.

Azken urteetan koadrilarekin konpartsa izugarriak ateratzen dituzue; jakuzia, animatzaileak...

H. D.: Bai, azken urteetan koadrilarekin ibilgailuren bat hartu eta konpartsa nahiko politak egin izan ohi ditugu. Aurtengo denbora arazo medio ez dugu horretarako aukerarik izan, hala eta guztiz ere koadrila hori ibili gara eta ederki pasatu dugu.

Aurtengo Inauteriak amaitzen direnean hurrengo urtekoak izaten al dituz buruan?

H. D.: Aurtengoak amaitzen direnean lehenbizi atsedean hartuko dut. Baina nahi gabe ere, lehen ikerrak esan duen bezala, hurrengo urteko buruan ibiltzen dituzu. Askotan pentsatu ohi duzu Inauterietarako mozorro txarra etzen izango hau eta antzeko gauzak. Azken finean hiru egun bikainak pasatzen dituzu eta ez duzu amaitzerik nahi. Jaiak bere egiten zaitu eta ondorioz jaia barne-barnean ematen duzu urte guztian zehar.



Cleopatrak ere askotan bisitatu izan ditu Tolosako Inauteriak. I.T.



Tzanogorritxo, indioz, mexikarrez, Charlot edota Robin Hood- ez asko ikusi ditugu mozorrotuta. I.T.



Tartean mozorro berritzaileak ere agertzen dira. I.T.



Urtetik urtera arrakasta gehien izaten duen mozorroetako bat izaten da pailazoarena. Gazte nahiz heldu, pailazo ugari ikusi dira aurten ere. I. TERRADILLOS / N. LATABURU

Hutsik egiten ez dutenak

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan
DOAN agertuko da

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95



ONENAK EMAN DU

Inauteriak» Azken egunean ere musika eta dantzarekin lagunduta, irudimena izan da nagusi karroza, konpartsa eta mozorroetan.

E. EZIZIA - N. URIBIZU

Inauterietako azken egunean indarrak sobetan ez baidiren ere, lastore bizitz bete ziren Tolosaldeko kaleak. Karrozek, konpartsek eta mo-

zorroek kaleak hartu zituzten hirugarren egunez jarrirain. Ez zen irudimena egina izan, baizik eta jende gehienak zer edo zer jarri zuten gainean. Azken batean hori

da Tolosaldeko Inauterietako esentzia, luma handirik gabeko, irudimena erabiliz umorea eta irribarreak eragitea.

Dantza eta musika izaten dute oinarri karroza gehienek beraien emanaldiak prestatzeko garaian. Hala, zitokoko pertsonaiek nabiz Angula hazregileo langileak ge-


aurre egiteko, edaria eta janaria ezin diren filmatzeare, eta albeho-

Bi edo hiru egunetarako ikusizuna prestatzeko, hilabetetako lana dago atzetan, eta aurrengoa eguraldiak lagundu duenez, ez da zapuztuta ikusi.

Orijinalitateaz geroveta zailago den honetan, askok telebistako saio ospetsuak hartu zituzten oi-

nari beraien karroza eta konpartsak prestatzeko garaian. Dena den, baziren eguneroko bizitzan ikusten diren egoerak ere. Hala nola, Gurutze Gorriko langileak, arantzakoak, Haut eskola.

Desberdina izate horretan, batzuk kolektorearen obrei probetza sinertzen ere jainko zuten, eta erreka bat inprobisatuz, arantzan aritzeko balio izan ziren.



Kolektorearen obrak aprobetsatuz egin zuten batzuk mozorroa. © EZIZIA

Askok hotza pasatu behar izaten dute, Gurutze Gorrikoen kasua horrela izan zen. © NETA URIBIZU



Judutarak San Frantzisko elizan erresatzen aritu ziren... ©



Mozorro batzuk joku handia ematen dute, waterpoloz jantzita esaterako; Lizardi elkartekoak ere hor bilt ziren. © E. E. A. L.

TXOKOA hitza

harpidedun izateak badu saria

1. Ileaipaindegian zerbitzu osoa

honenkin

www.honenkin.com
honenkin@honenkin.com
943 51 06 25
Saria Maria Plaza 1 • 48904

2. laguntzako afaria

Erreka Sagardotegian

ERREKA

Erreka sagardoa
LEITZA
Tel: 948 51 06 25
(Auzolako Letretako mozorroak ez errentan gaudu)

3. 2 laguntzako afaria

Zabala Sagardotegian

Garagartza baserria
Tel: 943 69 07 74
20150 ADUNA (Gipuzkoa)

R. ZABALA
Sagardotegia

4. hitza[®]ren material sorta

TXOKOA hitza

parte hartzeko deltu: 902-82 02 40 telefono zerbakira 09:00etatik 17:00etara (harpidedunen kodea eskura duzula)

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



» PATTAR ZEZENA



Zezenzale ugari harrapatu zituzten plazara ateratako lau hankakoek. I. GARCIA



Zezenzale batzuk zezenaren gainetik salto egiten aritu ziren. I. GARCIA



Izkingile batzuk ere aritu ziren zezenen adarretan eraztunak sartzen. I. GARCIA



Gaszte ugari izan ziren bigantxen aurrean. I. GARCIA



Zezena noiz atera zain. I. GARCIA

Iragarki laburrak

LANA

■ **Garbiketak.** Bigi Garbitasunak. Alfonbrak, etxeak, bulegoak eta abar garbitzeko prest. Deitu inongo konpromisorik gabe. Irene: 695 70 82 71 edo 638 94 46 04.

@ **Inauteriak.** Txupinazoa, txarangak, karrozak, aisialdi taldeak, sokamuturra, pattar zezena... Tolosako Inauterietako hainbat bideo ikusi ditzakezu HITZAREN webgunean. Horrez gain, Abaltzisketako txantxoak eta Amezketako talaia ere ikusgai daude. Bideoak ezezik, hainbat argazki ikusi eta Inauterietako kantak ere entzun ditzakezu.

www.tolosaldekohitza.info



Txarangek gogotik girotzen dute Pattar Zezena. I. GARCIA



I Inkesta

1. Zer moduz joan dira aurtengo Inauteriak? 2. Egunez egun zeintzuk izan dira zure mozorroak? 3. Zein da zuretzat Inauterietako egun kuttuna?



«Ez naiz etxean sartu ere egin egun hauetan»

Andres Sanchez
TOLOSARRA

1. Inauteri hauetan etxean sartu ere ez naiz egin, eta orain horrela gabilta, Insaluzko akzioak erosten. Hori da gehien saltzen ari dena.
2. Bi mozorro jantzi ditut inauterietan. Igandean eta gaur hau, burtsako dirudunarena. Astelehenean judutarrez irten nintzen.
3. Ostegun gizona, Tolosako jendearantzat delako.



«Urtero zerbait ateratzen dugu konpartsetarako»

Inaxio Calva
TOLOSARRA

1. Oso ondo. Eguraldia lagun izan dugu eta ederki ari gara gozatzen.
2. Urtero zerbait ateratzen dugu konpartsetan eta aurten bakeroz atera gara igandean eta asteartean. Astelehenean berriz Disneyeko pertsonaiez mozorrotu ginen, duela urte batzutako mozorroekin.
3. Dianarekin igande goizean hasi eta astearte bukaera arte; batez ere hiru egun hauek.



«Jaia koloreztatzeko beti prest: gora bihotzak!»

Sergio Garzia
TOLOSARRA

1. Ederto, beti bezala. Gogoarekin atera ezkerok beti dira ederrak.
2. Bi egunetan irten naiz eta mozorro ezberdinekin zalantzarik gabe. Gaur medikuz nabil eta astelehenean kupidoz.
3. Nire ustez egun guztiak dira onak. Ostegun Gizona eta igandea politikak dira adibidez baina jaiari kolorea emateko beti prest. Gora bihotzak!



«Indarrak ez eduki arren atera egiten zaizkizu»

Rosa Jauregi
TOLOSARRA

1. Oso ondo. Azken urteetan Artxiboaren aurrean geldi egoten ginen eta aurten kaleetan ibili gara.
2. Igandean, Dianarekin hasi eta egun guztian zehar gaur bezala Mamma Miaz mozorrotu ginen. Astelehenean Bar Coyotez.
3. Igandea eta astearte asko gustatzen zaizkit. Igandean Diana eta asteartean berriz, indarrak ez eduki arren, atera egiten zaizkizu.



«Edozer gauzekin mozorro bikainak egiten dira»

Mila Zelarain
ANDOAINARRAK

1. Mundialak.
2. Hiru egunetan atera gara. Larunbatean Andoainen eta, igandean eta asteartean Tolosan. Konpartsetan diskotekako dantzari irten gara eta alkandora luze batekin ere irten naiz.
3. Gu egon geran bi egunetan zoragarri pasatu dugu. Izugarria da jendeak edozer gauzekin egiten dituen mozorro bikainak.



«Beste konpartsak ez ikusteak ematen du pena»

Ane Olazabal
ANDOAINARRAK

1. Egun zoragarriak izan dira. Baina karroza barruan baldin bazaude, ez duzu besteak ikusteko aukerarik, hori da arazoak.
2. Ostegun Gizenan pirataz, irakaslea naiz eta umeekin atera ginen. Ostiralean pailazoz mozorrotu ginen eskolan. Tolosan berriz dantzari konpartsetan.
3. Igandean eta asteartean oso ondo pasatu dugu behintzat.



«Hiru egunetan irten ohi gara baina aurten bitan»

Mikel Market
TOLOSARRA

1. Oso ondo. Giroa ere bikaina dago, berezia. Bestalde, jendea oso jatorra da eta ederto pasatzen ari gara.
2. Normalean hiru egunetan irteten gara, baina aurtengoan bitan bakarrik irten gara, alperzen hasiak gaude. Haurtoz gaude.
3. Ostegun Gizona eta astearte. Ez dabil jende asko baina giro bikaina dago.



«Asteartean herriko jendea dabil eta gustukoa dut»

Enrike Martin
TOLOSARRA

1. Ondo, zertxobait kutxan sartuta. Ea bihar nork ateratzen gaituen hemendik.
2. Atzorarte kanpoan egon nintzen. Tolosara etorri eta haurto honen barnean sartu nintzen, eta hemen nago.
3. Astearte, herriko jendea ibiltzen delako. Beste egunetan jende gehiago ibiltzen da eta zailtasun gehiago izaten da mugitzeko.



«Mozorroak goizetik arratsaldera aldatzen dira»

Ana Belen Garces
TOLOSARRA

1. Oso ondo pasa dut, oso gustura.
2. Egun guztietan eta gau guztietan irten gara. Mozorroak berriz goizetik arratsaldera eta arratsaldetik gauera aldatu dira: kortsarioz, Amish, Duke pertsonaiaren bila ere ibili ginen...
3. Ostegun Gizenan oso gustura irteten gara. Adinagatik gau batean parranda egitea erabaki genuen baina eskuetatik joaten zaigu.



«Diana polita da hurrekin eta pijamajaz joateko»

Idoia Lopetegi
ASTEASUARRA

1. Ondo.
2. Hirutan irten gara, gizonak tolosarrak dauzkagu eta derrigorrezkoa da irtetea; behartuta gaude. Mozorroak errepikatu egiten ditugu igandean eta asteartean. Astelehenean beste urtetako zerbait jatten dugu.
3. Astearte lasaiagoa delako. Diana ere oso polita da, hurrekin eta pijamarekin joateko.



«Igandeko Dianarik gabe ez dago Inauteririk»

Edurne Arrizibita
TOLOSARRA

1. Ondo baina motzak. Iganderarte lanean aritu naiz eta azkar pasa dira.
2. Igandea eta asteartean pailazoz eta astelehenean beldurrezko jantziak.
3. Ezin dut aukeratu. Ostegun Gizona esaten nuen lehen, baina orain igandeko Dianarik gabe ez dago Inauteririk niretzat. Denak gustatzen zaizkit.



«Ostegun Gizona da egun politena niretzat»

Izaro Etxekonanea
ORENDAINARRA

1. Oso ondo pasa ditut inauteriak. Mozorrotu egiten zara eta asko gustatzen zait niri mozorrotzea.
2. Hiru egunetan atera naiz; igandean, astelehenean eta asteartean. Bi egunetan pailazoz atera naiz eta astelehenean odoleztatutako mojaz.
3. Ostegun Gizona da egun politena. Txupinazoa eta giro ona egoten delako.



«Beldurrezko jantziak mozorrotu nintzen»

Uxue Makro
TOLOSARRA

1. Oso ondo pasa dut Inauterietan. Igandean, astelehenean eta asteartean atera naiz.
2. Pailazoz mozorrotu naiz bi egunetan. Astelehenean berriz beldurra emateko, Drakularen emazteaz edo sorginez mozorrotu nintzen.
3. Ostegun Gizona gustatzen zait. Txupinazoa eta goxokiak botatzen dituztelako.



«Medikuz eta hippyz jantzi naiz aurtengoetan»

Garazi Astrain
ALTZOTARRA

1. Oso ongi, asko gustatu zaizkit aurtengo Inauteriak.
2. Medikuz jantzi naiz, eta baita hippyz ere. Nik pentsatutako mozorroak izan dira.
3. Urtero etortzen naiz Tolosako Inauterietara, eta preimeran pasatzen dut. Egun guztiak izaten dira niretzat onak. Askok gustatzen zait, esaterako, barraketan jolasean aritzea.



«Zorroaren mozorroa dut bereziki gustuko»

Ekhi Munduate
ALEGIARRA

1. Askok gustatzen zait Tolosako Inauterietara etortzea, batez ere, mozorrotzeko kontuarengatik.
2. Hiru mozorro desberdin jantzi ditut, ehiztariarena, piratarena eta bakeroarena. Hirurak gustatzen zaizkit, baina mozorro bat aukeratzekoan zorroarena aukeratu nuke.
3. Ni urtero etortzen naiz, eta egun guztiak dira politikak.



12°
5°

GOIZA	EGUZKIA
ARRATS.	EGUZKIA
BEROENA	15°
HOTZENA	5°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoetalea: 687 410 022. anoetalea@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarralde: 687 410 032. ibarralde@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leitzalde: 687 410 118. leitzalde@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO HEDABIDEAK

eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezket, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Orexa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

» **GUARDIAKO FARMAZIAK**

- **Tolosa.** Etxebeste, J.M. Gernika-ko Arbola, 3. 943 65 10 40.
- **Lekunberri.** Mendia, M.I. Aralar kalea, 25. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esaneren eta iritzien erantzunkizunik.


Bukatu dira aurtengoak!

Ederki igaro dugu aurtengo Inauterietan. Ezin kexatu. Baina, konturatzera bukatu dira, eta datorren urtera arte adio esan beharrean gaude. Penarekin, baina orotzapean onekin geratu gara. i.g



Etorkizuneko inauterizaleak hezituz

Festetan ere guraso izateari ez uztea oso garrantzitsua da; eurengatik gozatzen dute gaztetxoek Inauteriez, eta hasten dira txikitatik hauek ezagutzen: mozorrotuz, karrozak eta konpartsak erakutsiz... N.URBIZU



A Agurrak

urtebetetzeak - urrezko ezteiak
ezkontzak - jaioberriak
jaunartzeak...

agurrak agurrak

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitzan: Udaletxeko bulegoa

agurrak agurrak

BOZKATU EAJ PNV jakin eta egin

**iba
rre
txe**

Bakea lantzeko Lehendakaria.

ibarretxe.com

Errespeturako eta elkarrizketarako Lehendakaria.
Giza-eskubide guztiekin eta bakearen bidean elkarrizketarekiko konpromisoa hartu duen Lehendakaria. Ibarretxe behar dugu. Orain, inoiz baino gehiago.

ORAIN INOIZ BAINO GEHIAGO